

**Euskararen erabilera normalizatu
eta sustatzeko programak:
EAE eta foru diputazioak**

**Programas de normalización
y fomento del uso del euskera:
CAPV y diputaciones forales**

1998



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA.....	3
ONDORIOAK	5
I. Aurrekontu programak eta 1998ko gastuak.....	5
II. Kudeaketaren alderdiak: normalizazio planen egungo egoera	9
III. Dirulaguntzen legezkotasuna aztertzen.....	12
IV. Gomendioak	13
ERANSKINAK	15
A.1 Hizkuntz eskakizunak eta normalizazio planak	15
A.2 Hezkuntza Saila: irakasleak.....	16
A.3 HAAE: Administrazio Orokorreko langileak	17
A.4 Ertzaintza, Osakidetza eta Justizia Administrazioa	18
A.5 HABE	19
A.6 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.....	20
A.7 Foru Diputazioak	21
INTRODUCCIÓN.....	22
CONCLUSIONES	24
I. Los programas presupuestarios y los gastos de 1998.....	24
II. Aspectos de gestión: la situación actual de los planes de normalización	28
III. Análisis de legalidad de las subvenciones	31
IV. Recomendaciones	32
ANEXOS.....	34
A.1 Los perfiles lingüísticos y los planes de normalización	34
A.2 Departamento de Educación: docentes	35
A.3 IVAP: empleados de la Administración de la CAPV	36
A.4 Ertzaintza, Osakidetza y Administración de Justicia.....	37
A.5 HABE	38
A.6 Viceconsejería de Política Lingüística – HPSO	39
A.7 Diputaciones Forales	40
VOTO PARTICULAR QUE FORMULA EL CONSEJERO JOSE ANGEL QUINTANILLA.....	44



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

SARRERA

Lanaren hedadura

Honako txosten hau Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 1999ko apirila-2000ko martxoa bitarteko urteko Lan Programan jasoa dago; Eusko Jaurlaritzak eta Foru Diputazioek euskararen normalizazio eta erabilera indartzeko bideratutako programak ditu aztergai, eta Eusko Legebiltzarrak eskatutakoa da.

Lanaren helburua jardunbide hauek zein programa eta aurrekontu-gastutan gauzatzen diren identifikatzea izan da, I. atalean, eta 1998ko urtealdiko datu ekonomikoak ematea.

Ondotik, txostenaren II. atalak informazioa ematen du langile publikoek duten hizkuntz-gaitasunaren mailari buruz eta iada amaitu diren eta egun indarrean dauden normalizazio planen egoerari buruz.

III. atalean, berriz, dirulaguntza garrantzitsuenak ematerakoan lege arautegia betetzen den aztertzei eskuratu ditugun emaitzak erakutsiko ditugu.

Amaitzeko, IV. atalak programa hauen kudeaketaren beste alderdi batzuk aztertzen ditu eta hainbat gomendio ematen hobetzeko.

Normalizazioa eta erabileraren sustapena zer den

Txosten honen hedadura zehaztearren, “normalizazioa eta erabileraren sustapena” kontzeptuak hartu ditugu politika iragankor eta apartekotzat, euskararen ezagutza eta erabilera maila gutxiengoa eskuratzea helburu dutenak eta aparteko babesik gabe euskararen biziraupena bermatuko dutenak.

Horregatik, kontzeptu honek ez ditu ez euskaraz egindako jarduera guztiak besarkatzen, ezta hizkuntza honetan ematen diren zerbitzu guztiak ere (esate baterako ETB1 telebista katea edo euskararen irakaskuntza hezkuntzaren sisteman), nola eta ez duten aipatutako izaera iragankor hori eta sustaketarako helburua.

Lege esparrua

10/82 Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeak zehaztu zituen Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak euskaldunei aitortutako hizkuntz- eskubideek sektore publikoari eragiten zizkioten obligazioak.

Irakaskuntzaren alorrean, lege hau hurrengo urtean garatuko da 138/83 Dekretuaren bitartez, hizkuntz-ereduak arautu eta Irakasleak Alfabetatu eta Euskaldundu-Irale programa abian jarritz.

Gainerako euskal sektore publikoari dagokionez, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legeak, 224/89 Dekretu bitartez garatutakoak, lanpostuen hizkuntz-betekizunak zehaztera behartzen du; ordea, bi talde salbuesten ditu: Osakidetza eta Ertzaintza, izan ere, hauei berariazko tratamendua ematea aurreikusi baita (ikus A.1 Eranskina, hizkuntz eskakizunak deskribatzen dituena).



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Era honetara, administrazio publiko garrantzitsuenek euren normalizazio planak onartu zituzten eta bosturteko lehen prozesu bati hasiera eman zitzaien, 1995ean amaitu zena.

86/97 Dekretuak gaur egungo bigarren plangintzaldia bideratu zuen, 2002. urtera arte indarrean egongo dena.

Ertzaintzari dagokionez, 30/98 Dekretuak normalizazio planaren helburuak zehaztu zituen eta urte horretan bertan, hizkuntz-betekizunak finkatzen zituen lehenengo Lanpostu Zerrenda onartu zen.

Osakidetzan, berriz, Antolamendu Sanitarioari buruzko 8/97 Legeak normalizazio plan bat garatzea aurreikusten du, 99.12.31n oraindik oniritzi ez dena.

Halaber, 10/82 Legea garatuz, Euskal Autonomia Erkidegoak euskararen ezagutza eta erabilera indartzeko 1983an honako erakunde hauek sortu zituen:

- Hizkuntza Politikarako Idazkaritza, 1995ean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza-HPSO bihurtu zena.
- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea-HABE erakunde autonomoa, helduei euskara irakasteko sortua.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDORIOAK

I. AURREKONTU PROGRAMAK ETA 1998-KO GASTUAK

Hona hemen autonomia- eta foru-administrazioetan euskararen normalizazio eta sustapenerako aurrekontu-programek 1998ko urtealdian eragindako gastua (Ertzaintza eta Osakidetzaren kasuan jarduera hauek eragindako gastuak adierazi ditugu, nahiz eta urteko kontuetan berriazko programetan bereziak ageri ez diren):

EUSKARA NORMALIZATU ETA SUSTATZEKO GASTUAK 1998-AN							Milioi pta.			
Programa	Eransk. Propioa	Langile Ordez. gtu.ak	Dirula- guntzak	Erosket. eta best.	Gastuak 1998 (*)	Pres- takun.	Pro- moz.	Itzul- pen.	Plantila 98 (**)	
EA Eren administrazioa										
Hezkuntza saila: irakasleak euskalduntzea	A.2	546	5.598	814	528	7.486	X	X	-	17.808
HAE: bestel. enplegatu publ. euskalduntzea....	A.3	249	-	124	216	589	X	-	X	5.830
Ertzaintza: Polizia Ikastegian gastuak.....	A.4	41	-	-	130	171	X	-	-	7.301
Osakidetzaren Zerbitzu Orokorretan gastuak	"	-	348	-	-	348	X	-	-	21.718
HABE: gastuak guztira	A.5	388	-	2.981	395	3.764	X	X	-	
HPSO: Hizkuntza Politikaren programa (***)	A.6	188	-	501	155	844	-	X	-	
EA Eren administrazioa		1.412	5.946	4.420	1.424	13.202				52.657
Arabako FD: euskalduntzea	A.7	22	92	28	22	164	X	X	X	1.709
Bizkaiko FD: hizkuntz-normalizazioa.....	"	87	65	85	23	260	X	X	X	3.433
Gipuzkoako FD: normalizazioa	"	78	4	117	71	270	X	X	X	1.901
Adm. Orokor. eta Foru Dip. gastuak guztira		1.599	6.107	4.650	1.540	13.896				59.700
Ordeztu gabeko enplegatuei euskarazko eskolak (balioespena)						1.128				
Aurreko balioespena barne hartuta, guztira						15.024				

(*) Ondoko lerroetako datuak ez datoz bat urteko kontuetako datuekin:

- Arabako FD: langile gastuak erantsi dira, azpiprograma honi egozten ez zaizkionak.
- Bizkaiko FD: euskaraz egindako kultur jardueren gastuak erantsi dira, datuak homogeneizatzeko.
- Gipuzkoako FD: ordezkapenetako gastuak erantsi dira, eta Eusko Ikaskuntzari emandako dirulaguntza kendu.

(**) Normalizazio programa zuzentzen zaien enplegatu publikoen taldearen plantila guztira.

(***) HABEri egindako transferentziak kenduta.

Aurrekontu programak

Aurreko taulan erakutsitako aurrekontu programak oso berdintsuak dira eta honako jarduera hauek besarkatzen dituzte:

- langileen hizkuntz-prestakuntza.
- euskararen erabilera eta gizarte mailako ezagutza sustatzea; hauetan, ordea, hainbat ekintza biltzen dira eta, maiz, zail da bereiztea hizkuntzaren sustapen eta euskaraz garatutako kultur-jardueraren mugen artean.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- horiekin batera, itzulpen zerbitzuak bezalako aribideak barne hartzen dira, euskara berreskuratzeko politikekin zerikusirik ez dutenak, eta zeinahi erdkidego elebidunetan beharrezko direnak.

Urteetan zehar izandako bilakaerari dagokionez, urteko kontuetan barne hartu diren berriazko zazpi aurrekontu programen gastuek 1996 eta 1997an, hurrenez hurren, 1998ko gastuen %90 eta %94 egin zuten.

EAEren Administrazioan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak koordinatzen ditu normalizazio planak eta sustatzen euskararen gizarte mailako erabilera. Langile publikoak gaitzeko, prestakuntza planetan esku hartzen duten 5 unitate organiko daude bereziak:

- Hezkuntza Saila, irakasleentzat
- HAEE erakunde autonomoa, langile autonomiko, foru eta udalekoentzat
- Poliziaren Ikastegia erakunde autonomoa, Ertzaintzarentzat
- Osakidetza, langile sanitarioentzat
- HABE erakunde autonomoa, euskaltegiak koordinatzen dituena.

Foru Diputazioek HAEEren bitartez bideratzen dituzte euren prestakuntzarako politikak. Aldeak daude horien artean ere, bai ardura hartzen duten unitateen mailan (zuzendaritza batek Gipuzkoan, zerbitzu batek Araban eta atal batek Bizkaian), baita organikoki duten menpetasunean ere (Lehendakaritzaren Sailean Bizkaian eta Kultura eta Euskararen Sailean Araba eta Gipuzkoan).

1998ko gastuak

1998ko urtealdian kontuetaratu ziren gastuek autonomia eta foru administrazioen finkatutako gastuaren %1,5 egiten dute, Estatu eta udalekiko erakunde-konpromisoak alde batera utzi eta gero.

Liberatutako langileentzat ordezkioak kontratatzea da gastu nagusia, batik bat irakasleen multzoan eta gastu guztiaren %44 egiten du. Garrantziaren hurrenkeran, gastu guztiaren %21 bereganatzen duela, euskaltegien sarea finantzatzeko HABEren bitartez emandako dirulaguntzak daude.



Langileria

LANGILE PROPIOAK		pertsona kopurua							
Erakundea	Eransk.	Goi karguak	__Taldea__		Guztira	Jarduera			
			A/B	C/D		Irakasleak	Itzul.	Bestel.	
EA Eren adm.	Hezkuntza saila	A.2	-	137	14	151	107	-	44
	HAE E	A.3	-	34	6	40	-	8	32
	Ertzaintza	A.4	-	7	-	7	7	-	-
	Osakidetza	"	-	-	-	-	-	-	-
	HABE	A.5	1	47	27	75	-	1	74
	HPSO	A.6	3	21	8	32	-	-	32
EA Eren administrazioa			4	246	55	305	114	9	182
	Arabako FD	A.7	-	1	3	4	-	1	3
	Bizkaiko FD	"	-	11	2	13	-	7	6
	Gipuzkoako FD	"	1	10	1	12	-	7	5
Admin. Orok. eta Foru Dip. guztira			5	268	61	334	114	24	196

Euskalduntze eta euskararen sustapenerako administrazio-unitateetarako izendatutako langileriarri dagokionez, 268 dira A eta B multzoetako langileak; horietatik 114k hizkuntz-irakasle modura dihardute eta 23k itzulpen zerbitzuetan (itzultzaile baten lanpostua C multzoan jasoa dago). Gainerako langile teknikoek aurrekoei laguntza emateko lanak egiten dituzte (azterketak prestatu eta zuzendu, euskaltegien ikuskaritza, material didaktikoa prestatzea, etab.) edo bestela, administrazio lanak soil-soilik.

C eta D taldeko langileak 61 dira eta administrazio lanak egin ohi dituzte: matrikulazioak, euskaltegi eta ikasleen erregistroak, jendaurreko arreta, etab.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Autonomia- eta foru-langileentzako euskarazko eskolak

Hona hemen 1998-99 ikasturtean laneko ordutegian euskarazko eskoletara joateko baimendutako autonomia eta foru langileen kopurua:

1998-99-AN EUSKARA IKASTEKO IKASTAROAK		Pertsonak	
Erakundea	2 h/eguneko ikastaroak	5-6 h/egun ikastaroak	Orduak guztira (*)
Adm. Orok.: Irakaskuntza	-	1.048	943.200
" " Bestel. eta erak. autonomoak.....	333	59	169.650
" " Osakidetza	2	150	135.700
" " Ertzaintza	-	100	90.000
Arabako Diputazioa	68	19	40.900
Bizkaiko Diputazioa	22	21	26.600
Gipuzkoako Diputazioa	59	7	26.950
Guztira	484	1.404	1.433.000

(*) 350 ordu urteko kalkulatu dira 2 orduko ikastaroetan eta 900 ordu 5-6 orduko ikastaroetan.

Euskarazko ikastaroek dirauten bitartean langileak bitarteko beste langile batzuen bidez ordezkatzan ez direnean, administrazioarentzat lanorduetan galtzen den kostua dagoela hartu behar da gogoan, nahiz eta diruz egindako ordainketarik ez dagoen.

Ordeztu ez diren langile hauen kostua gutxi gora-behera 1.128 milioi pta.n balioetsi daiteke, hau da 508 milioi pezeta 2 orduko ikastaroena (484 ikastaro x 350 ordu x balioetsitako orduaren balioa = 3.000 pta.) eta 620 milioi pezeta 5-6 ordu/eguneko ikastaroena; esan bezala, kostu hau ordezkapen gasturik ez duten taldeena da: autonomia administrazioa eta Ertzaintza (159 ikastaro x urteko ordezkapenaren balioetsitako balioa = 5,34 milioi pta.. x urteko lanaldiarekiko irakas-egunek egiten duten %73).



II. KUDEAKETAREN ALDERDIAK: NORMALIZAZIO PLANEN EGUNGO EGOERA

Langile publikoen euskalduntzea

Ondotik erakutsiko ditugu normalizazio planen lehenengo zikloan egiaztatutako hizkuntz eskakizunak eta gaur egun indarrean dauden plangintzen egoera eta helburuak:

HIZKUNTZ ESKAKIZUNEN EGOERA ETA 1999-AN INDARREAN ZEUDEN NORMALIZAZIO PLANAK

Erakundeak	__95ean egiazt. h.esk. (1.zikloa)__			95eko% %	99ko % helburua	Egungo pl. gutxi g-b	Egungo pl. urtea	aurreik. % 2002/3
	1	2	3 eta 4					
Adm. Orokorra: Irakaskuntza (*) ...	-	1.417	9.159	%59	-	%66	1993	Aldak.
" " Best. + erak. aut...	426	752	585	%29	%33	%42	1998	%41
" " Ertzaintza	-	-	-	-	-	%23	1998 (**)	%20
" " Osakidetza.....	-	-	-	-	-	%0	Ez dago	-
Arabako Foru Diputazioa	18	63	19	%12	%15	%17	LZ soilik	%24
Gizarte Ongizaterako Foru Erak.	10	19	17	%5	%15	%9	LZ soilik	%24
Gaztediaren eta Kirolaren Foru Erak. .	5	13	4	%34	%15	%39	Ez dago	-
Bizkaiko Foru Diputazioa	147	455	174	%27	%26	%31	1999	%34
Gizarte Laguntzarako Foru Erak.	59	84	26	%24	%26	%30	Ez dago	-
Lurralde Ikasketetarako Foru Erak.	-	-	-	-	%26	%0	Ez dago	-
Gipuzkoako Foru Diputazioa.....	181	300	127	%35	%52	%53	1998	%59
Uliazpi Fundazioa	-	-	-	-	%52	%0	Ez dago	-
Guztira	846	3.103	10.111	%23		%30		

(*) Irakaskuntzan bi hizkuntz eskakizun baizik ez dira aurreikusi eta 1.a sistema orokorreko 2.ari dagokio, eta 2.a, 3.ari. Normalizazioaren 1. zikloaren zutabeko datuak Bostamar txostenetik eskuratu ditugu eta 1997. urteari dagozkio.

(**) LZren argitarapen data, 1. mailako 516 hizkuntz eskakizunekin, guztiak derrigortasun datadunak.

1995ean egiaztatutako hizkuntz eskakizunen ehunekoa erakusten duen zutabea eskuratzeko honako hau egin dugu: hartu egiaztatutako hizkuntz eskakizunak eta lanpostu kopuruaren artean zatitu. Kalkulu hau prozesua balio-neurtzeko dokumentazio ofizialean erabili denaz bestelakoa da; izan ere, betetako helburutzat hartu baitziren derrigortasun data izan eta hutsik zeuden lanpostuak; baita, adina zela eta, hizkuntza ikastetik salbuetsita zeuden pertsonen betetako lanpostuak ere. Honen aldean, informazio ofizial honek ez zuen jasotzen derrigortasun datarik gabeko lanpostua betetzen zuten langileek eskuratutako hizkuntz eskakizunen betetze-maila.

Irakaskuntzaren sektorean helburuen izendapena aldakorra da, irakaskuntza elebidunaren eskaera etengabe hazten ari baita (ikus A.1 eranskina). Aurreko taulan 47/93 Dekretuaren data erakusten da, ikastetxeei emandako langileentzat hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun datak izendatzeko irizpideak ezartzen dituen, eta 1997ra arte egiaztatutako hizkuntz eskakizunak.

Ertzaintzan prozesuari 1998an ekin zitzaion eta 2008. urterako helburua da, 1. hizkuntz eskakizuna eskuratu duen langileen ehunekoa, egungo normalizazio planek EAEren administrazioarako aurreikusten duten ehunekoaren pareko izatea. Kopuru honen erdia lehenengo bosturtekoan eskuratu beharko da (ikus A.1 eranskina).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

1. Lehenengo baloraketa modura, azpimarratzekoak dira irakaskuntzaren alorrean eskuratutako emaitza positiboak, izan ere, hizkuntz eskakizunen %59 egiaztatu baitira eta haur eta lehen hezkuntzako irakasle publiko elebidunak, esate baterako, 1977 eta 1998 bitartean %5etik %72 izatera aldatu baitira. Egindako lanaz gain, gogoan hartu behar da badirela kanpoko hainbat faktore bilakaera hau indartu dutenak, hala nola, ikastoletako langileak sare publikora biltzea eta irakasle elebidun berrien sarrera. Bestalde, irakasle funtzionarioek ere euskararen akuilua sentitu dute, euskarazko zerbitzu-eskari izugarriak bultzatuta, ikasitakoa berehala erabiltzeko aukera izan baitute.

2. Normalizazio planen egungo egoerak honako huts hauek erakutsi ditu:

- Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko 8/97 Legeak Osakidetzarentzat Hizkuntza Normalizazioari buruzko Plana egitea eskatzen du, gaur arte bete ez dena.
- Bizkaiko Diputazioaren foru erakunde autonomoek (Gizarte Laguntzarako eta Lurralde Ikasketetarako foru institutoak) eta Gipuzkoako Diputazioarenak (Uliazpi Fundazioa) ez dituzte euren normalizazio planak oniritzi.
- Arabako Foru Diputazioak plangintza osagabea dauka, izan ere, 1998ko urrian lanpostuen zerrenda aldatu bazuen ere, ez ditu arautegiak eskatzen dituen beste zenbait alderdi zehazten, batik bat, antolaketarako unitate elebidunen zehaztapena. Gizarte Ongizaterako Foru Institutua erakunde autonomoa ere egoera berean dago.

3. Normalizazio planen exekuzioa balio-neurtzen duen ekintza nagusia langile publikoek hizkuntz eskakizunak egiaztatzea da eta hori, orokorrean, zuzen betetzen ari da.

4. Ez administrazio planek, ezta administrazio ezberdinetako aurrekontuek ere, ez dituzte administrazio esparru ezberdinetan euskararen erabilera zenbatekoa den erakutsiko duten adierazleak definitzen; informazio hori ezin eskuratu izan dugu bestelako bideak erabilia ere eta honenbestez, ezin ondoriozta dezakegu ea euskararen erabilera areagotzeko helburu orokorra lortzen ari ote den edo ez, eta zein neurritan.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas


Euskararen erabilera

Euskara sustatzeko programek administrazio publikoetako langileen euskararen ezagutza bultzatzeaz gain, hizkuntzaren erabilera soziala indartzen ere saiatzen dira.


Nekeza da gaur arte gauzatutako ekintzen eraginkortasuna zehaztea, baina bosturtero Eustatek egiten duen Biztanlegoaren Erroldari dagozkien atalek ondoko bilakaera hau erakusten dute euskararen ezagutzaz aitortutako mailari buruz:

EUSKARAREN EZAGUTZAZ AITORTUTAKO MAILA				%
	1981	1986	1991	1996
Euskaldunak	%22	%25	%26	%31
Euskararen ezagutza txikia	%14	%17	%20	%20
Gaztelania soilik	%64	%58	%54	%49
Guztira	%100	%100	%100	%100



Araba



Bizkaia



Gipuzkoa



Aurreko datuak aztertzean bilakaera positiboa estu-estu lotu behar da biztanlegoaren piramideak duen bilakaerarekin, izan ere, multzo gazteenek euskararen ezagutza askoz ere handiagoa baitaude, batik bat, hezkuntzaren sistema bitartez ikasi izanaren ondorioz.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. DIRULAGUNTZEN LEGEZKOTASUNA AZTERTZEN

Euskararen erabilera normalizatu eta sustatzeko aurrekontu programen legezkotasuna aztertzeko ondoko dirulaguntza-lerro hauek hartu ditugu:

- Hezkuntza saila: euskaraz ikasmateriala prestatzeko dirulaguntzak-EIMA (228 milioi pezeta), eta liberatutako irakasleen ordezkioak kontratatuzeko ikastetxe pribatuei emandako dirulaguntzak (515 milioi pezeta) (ikus A.2 eranskina).
- HAEE: liberatutako langileak ordezkatzeko kontratueterako udalei emandako dirulaguntzak (93 milioi pezeta) (ikus A.3 eranskina).
- HABE: sare publiko eta pribatuko euskaltegiei dirulaguntzak, homologatuak eta homologatu gabeak (1.217, 1.452 eta 119 milioi pezeta, hurrenez hurren), eta barnetegi zein familietako egonaldieterako dirulaguntzak (188 eta 5 milioi pezeta) (ikus A.5 eranskina).
- HPSO–Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: Euskaldunon Egunkariari dirulaguntzak (156 milioi pezeta), euskarazko aldizkariari (84 milioi pezeta), euskalgintza lerroko dirulaguntzak (62 milioi pezeta), eta videoen itzulpenari dirulaguntzak (17 milioi pezeta) (ikus A.6 eranskina).

Horietako bakoitzari dagokionez, ematerakoan publizitate, lehiaketa eta objektibotasunaren printzipioak gorde direla egiaztatu dugu, edo, kasua balitz, urteko aurrekontuaren bitartez dirulaguntza modu nominatiboan eman izana.

Egindako azterlanaren ondorio modura esan dezakegu, ez dela hutsik azaleratu aztertutako dirulaguntza-lerroetan.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. GOMENDIOAK

Helburuen adierazleak

Euskara normalizatu eta erabilera sustatzeko jarduerak erakusten dute plangintza-ahalegin nabarmena egin dela, urteanitzeko eperako aurreikusitako ekintzen bitartez. Hala eta guztiz ere, eta maiz gertatu ohi den moduan, aurrekontu-programek ez dituzte garbi bereizten ekintzen helburuak eta ekintzak baizik ez dituzte adierazten (eskolordu kopurua, emandako dirulaguntzak, hizkuntz eskakizuna egiaztatu duen langile kopurua, etab.).

Politika hauen eraginkortasun mailaren adierazle nagusia euskararen erabilerak berak izan behar luke, bai administrazioaren barneko esparruan, baita gizartean orokorrean ere, hainbat adierazleren bitartez baloratua. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hainbatero kontrolatu behar lituzke datu hauek eta horien bilakaera ezagutzera eman Aurrekontuen eta Likidazioen bitartez.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik koordinazioa

Kultura Sailak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bitartez plangintza- eta koordinazio-egiteko orokorrak ditu. Erkidegoko langileen hizkuntz-prestakuntza 4 sail edo erakunde ezberdinetatik egiten da (HAEE, Hezkuntza, Osakidetza eta Polizia Ikastegia); baita HABEtik ere, aurrekoei zerbitzu ematen diena, euskaltegien koordinatzaile legez.

Badirudi prestakuntzarako jarduera hauetako batzuk iada amaitzen ari direla euren ziklo nagusia, Irale programak esate baterako; beste batzuk, berriz, oraindik hasi gabe daude edo hasi berri, osasun alorrekoak edo Ertzaintzarenak esate baterako.

HPSOren jarduera oinarrizkoa da prestakuntza prozesuan esku hartzen duten sailen arteko koordinazioa eta informazio-fluxua hobetzeko eta komeni da ildo horretan sortzen ari diren barne ekimenak sendotzea: lantaldeen eta batzordeen sorrera.

Orobat, eta erakundearteko mailara etorrira, sakondu egin behar dira Herri Agintea Koordinatzeko Batzordea-HAKOBA bezalako koordinazio-ekimenak, autonomia eta foru administrazioen eta hiru hiriburuen artean sortutakoa.

Euskaltegien sarea

Euskaltegi pribatuetan emandako eskolordu bakoitzeko kostua, udal euskaltegietakoa baino baxuagoa da. Azken hauei ematen zaizkien dirulaguntzak kalkulatzeko dira kostu nagusiari, langileenari, aurre egiteko heinean.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HABEk udal euskaltegien finantziazio sistema birplanteatu behar luke, euren jarduerarekin lotutako laguntzak zehazteko hainbat elementu sartuta, emandako eskolordu kopurua esate baterako.

Hizkuntz eskakizunen aniztasuna

Hizkuntz eskakizunen egoera konplexu samarra da; 4 maila bereizten dira sistema orokorrean eta 2 hezkuntzan eta Ertzaintzan. Azken honetan, 2. hizkuntz eskakizunaren edukia zehazgabe dago (ikus A.1 eranskina).

Hizkuntz eskakizunetan baztertu egin behar da gehiegizko aniztasuna, eta Ertzaintzari ezargarriak zaizkion hizkuntz eskakizunen 2.a zehaztasunez definitu.

HABE eta HAE Eren antolamenduaren egitura

HABEk dituen 75 lanpostuetatik 12 euskaltegien ikuskaritzarako bereiziak daude. Gainerako lanpostuak hainbat egitekotan banatzen dira, erakundeak arrazionalizatu asmo duen organigrama bihurri batean (liburutegia, argitalpenak, ordezkariak, ikasketen programazioa, ikasmateriala, administrazio alorra, e.a.).

HAE Eren euskalduntzerako zuzendariordetzak ere 1999ko urte amaieran organigrama birantolatzeke asmoa zuen; honako hau ere oso konplexua da eta bete beharreko egitekoen izendapen zorrotzegia duena.

Aurrekontuari buruzko alderdiak

Hezkuntza Sailak urtero ordezkapenentarako kontratazioen aurreikuspena egiten du, eskasa izan ohi dena; ondorioz, aurrekontu aldaketak egin behar izaten dira gastuaren egiterapenaren ondoren.

Funtzionarioak beste funtzionario batzuen bitartez ordezkatzeko direnean, hau da, ordezkapenentarako kanpoko kontratazioa erabiltzen ez denean, ordainsariak Irale programari egozten zaizkio, baina dagozkion aurrekontuko izendapenak transferitu gabe.

Irakasleen ordezkapenentarako aurrekontuko aurreikuspenak irizpide errealagoen arabera egin behar lirateke, eta urtealdian zehar ordezkari funtzionarioentzako onartutako zuzkidurak transferitu behar dira. Azken hauek eragindako gastuak, gainera, programaren beraren langileen gastuetatik bereizi behar dira.



ERANSKINAK

A.1 HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK ETA NORMALIZAZIO PLANAK

Langile publikoen euskalduntze prozesuak “hizkuntz eskakizunak” direlakoan izendapena du erreminta nagusi (edo hizkuntz-gaitasunak) eta horiek beharrezkoak dira LZn jasotako hainbat lanpostu bete ahal izateko.

Lau dira sistema orokorreko hizkuntz eskakizunak; horietatik lehenengo hiruen helburua hizkuntzaren ohiko erabilera da, geroz eta konplexuago diren gaitasunez baliatuz. 3. hizkuntz eskakizuna EGA eta baliokide diren egiaztagiriri zein diplomen pareko da. 4. hizkuntz eskakizunak euskara maila tekniko-administratiboan erabiltzea eskatzen du.

Lanpostu guztiek, oro har, hizkuntz eskakizuna dute izendatua eta zenbaitetan, derrigortasun-data daukate; data hori igaro ondoren ezinbestekoa da izendatutako hizkuntz eskakizuna gaintzea lanpostua bete ahal izateko. Gainerako lanpostuetan, euskararen ezagutza merezimendu modura balioztatzen da, balizko deialdietan bete ahal izateko.

Derrigortasun data duten lanpostu kopurua, administrazio-unitate bakoitzean, zerbitzu ematen dien biztanlegoaren euskararen ezagutzaren baitakoa da: honela, bada, Gipuzkoako Foru Diputazioan lanpostuen %59k dute derrigortasun data; ehuneko hau eskuratu dugu euskaldunen ehunekoa, gehi lurralde historikoan euskararen ezagutza duela aitortu dutenen erdia batu ondoren (%50 eta %18, hurrenez hurren, 1996ko erroldaren arabera).

Langile publikoek hizkuntza ikasteko duten obligazioarekin batera, lanaldian zehar euskara ikasteko eskubidea ere badute (1.728 ordu gehienera, esate baterako, 3. hizkuntz eskakizuna eskuratzeko).

Irakaskuntzaren sektorean bi eskakizun baizik ez daude; 1. eskakizuna sistema orokorreko 2.aren pareko da eta 2.a 3.aren edo EGAREN pareko. Modu aldakorrean izendatzen dira, izan ere, ikastaro bakoitza D, B eta A eredupeko hezkuntza-eskaintzari egokitzen baitzaio. Arautegiak 2. hizkuntz eskakizuna izan behar duten irakasleen ehunekoa zehazten du (%93, %71 eta %21, hurrenez hurren, D, B eta A ereduatarako); hizkuntz eskakizuna berehala eskagarria da D eredian eta mailaka gainerako bietan. Gainerako irakaskuntzako lanpostuek 1. eskakizuna daukate izendatua, batzu-batzuk derrigortasun datarekin, eta salbuetsita daude babesa emateko zerbitzuetako lanpostuak eta arautu gabeko ikasketetakoak, plangintzaz kanpo daudenak.

Ertzaintzan bi eskakizun soilik izatea aurreikusi da; 1. eskakizunak ez du baliokide garbirik sistema orokorrean eta 2. eskakizuna, berriz, oraino definitu gabe dago.

Hizkuntz eskakizunak izendatzeaz gain, administrazio bakoitzeko normalizazio planek bestelako alderdiak ere besarkatzen dituzte, ondoko hauek esate baterako:

- Hainbat administrazio-unitate elebidun izendatzea, derrigortasun data duten lanpostuak biltzen dituztenak.
- Barne eta kanpo harremanetan euskararen tratamendua arautzea.
- Hiritarrekin harremanak izatea eragingo duten zerbitzuak kontratatzeako arauak.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.2 HEZKUNTZA SAILA: IRAKASLEAK

Hezkuntza sailak euskalduntze programa baten bitartez garatzen du bertako hizkuntza politika, 4 jarduera-lerro nagusi dituela:

- Irale: Irakasleen hizkuntz-gaitasuna.
- Nolega: ikastetxeetan euskararen erabileraren sustapena.
- EIMA: euskaraz ikasmaterial didaktikoa prestatzeko laguntzak.
- EGA: hizkuntzaren ezagutza egiaztatzen duten azterketen deialdiak.

1998an programa honen jarduera eta plantila honako hau izan da:

HEZKUNTZA SAILA: EUSKALDUNTZE PROGRAMA 1998-AN						Miloi pezeta
Gastuak	Irale	Nolega	EIMA	EGA	Guztira	
Langilegoa: 91 pertsona irakasleei hizkuntz-gaitasuna emateko 4 ikastetxetan	451				451	
Langilegoa: 20 begirale 5 barnetegitan eskoletako ikasleen egonaldietarako		95			95	
Langilegoa: liberatutako irakasleak ordezkatzeko funtzionario irakasleak ...	506				506	
Langilegoa: liberatutako irakasleak ordezkatzeko kanpoko kontratuak	5.092				5.092	
2. kap.: 5 barnetegietan catering zerbitzuak		37			37	
2. kap.: eraikinen garbiketa, onibarrak, hornigaiak, telefonoa	36				36	
2. kap.: beste txikiago batzuk	16	29	9	35	89	
Euskaltegietan irakasleen matrikula gastuak (*)	353				353	
Euskarazko ikasmaterialerako dirulag: testu liburuak, software, ikus-entzun.mat....			228		228	
Liberatutako irakasleen 175 ordezeko kontratatze eskola pribatuei dirulag.	515				515	
Literatur-sari, zine emanaldi, UZEI eta eskolorduz kanpoko jardueri dirulag.	15	56			71	
Inbertsioak: ikastetxeetan errotulazio elebiduna	1	12			13	
GUZTIRA	6.985	229	237	35	7.486	

(*) Gastu hauek oker kontuetaratu dira 4. kapituluan, euskaltegiek langile publikoei emandako prestakuntza zerbitzuei baitagozkie.

Plantila	Orok.	Irale	Nolega	EIMA	EGA	Guztira
Lakuan langilego administrat. (11 perts.) eta ordezkariak (7 perts.) (*)	8	3	2	2	3	18
Hizkuntz-gaitasunerako zentroak: irakasleak		87				87
Hizkuntz-gaitasunerako zentroak: langile ez irakasleak		4				4
Ikastetxeetako ikasleentzako barnetegiak: irakasleak			20			20
Eskualdeko Pedagogia Aholkutegiak: irakasleak (**)			22			22
GUZTIRA	8	94	44	2	3	151

(*) Langile hauen gastuak "Egitura eta Laguntza" Sailaren programa orokorrari egozten zaizkio

(**) Eskualdeko zentro bakoitzean pertsona bat dago Nolega programa garatzeko egitekoekin; bere ordainsaria "Hezkuntzari laguntza emateko zerbitzuak" Saileko programa orokorrean kontuetaratu da.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.3 HAEE: ADMINISTRAZIO OROKORREKO LANGILEAK

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea-HAEE erakunde autonomoak bere eskumenen artean, autonomia-, foru- eta toki-langileen, irakasleak salbuetsita, eta Osakidetza eta Ertzaintzako langileen euskalduntze prozesua barne hartzen du. HAEEren Euskalduntze programak 1998an ondoko gastuak eta plantila-egitura izan du:

HAEE, 1998-AN EUSKALDUNTZE ETA NORMALIZAZIO-PROGRAMA	Milioi pezeta		
	Euskal- duntzea	Itzul- pena	Guztira
Gastuak			
Langile gastuak.....	158	91	249
2. kap.: HEren azterketak prestatu, zaindu eta zuzendu.....	30		30
2. kap.: irakas-aretoen eta azterketetarako aretoen alokairuak.....	25		25
2. kap.: 4. eskakizuneko ikastaroak ematea (19M) eta Argiro (5M) (*)	24		24
2. kap.: hiru hilero Administrazioa Euskaraz aldizkaria eta liburuak argitaratzea	18		18
2. kap.: Oñatiko barnetegian catering eta zaintza-zerbitzua	19		19
2. kap.: ahozko azterket. grabaketa (5M), ikasleen autobus. (4M), datu-grabaketa (2M), e.a...	22		22
2. kap.: ikastaro, bilera eta bidai gastuak	7		7
2. kap.: azpikontratutako itzulpenak.....		63	63
2. kap.: terminologiari buruzko ikerlanak (3M) bidai gastuak, ikastaroak, e.a.....		8	8
22 udali emandako dirulaguntzak, liberatutako langileak ordezkatzeko kontratu etarako	93		93
UZEI eta Deustuko Unibertsitat. emandako dirulag. (legeria zibil eta zigorbidezkoaren itzulp.).		18	18
Lege-administrazioiko terminologia beketarako eta bestelako etarako dirulaguntzak	5	8	13
Guztira	401	188	589

(*) 1etik 3ra bitarteko eskakizunen ikastaroak euskaltegien sare bitartez ematen dira eta HABEK ordaintzen ditu.

Euskalduntze zuzendariordetzaren plantila	Orokorra	Euskal- duntz.		
		Itzul- pena	Guztira	
Arduradunak (1 zuzendariorde, 2 zerbitzuburu, 8 ataleko buru).....	1	7	3	11
Teknikariak		15	8	23
Administrariak		4	2	6
GUZTIRA	1	26	13	40



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.4 ERTZAINZA, OSAKIDETZA ETA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

Arkauteko Polizia Ikastegiak du ertzainen euskalduntze prozesuaren ardura eta 1998an euskara ikasteko ikastaro kontzeptuan 130 milioi pezeta kontuetaratu zituen. Kostu honi Ikastegiko euskara sailarena gehitu behar zaio, 7 irakasle zituena eta urteko 41 milioi pezetako kostua eragin zuena.

Osakidetzak ez du oraindik 99.12.31n oniritzi Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/97 Legean aurreikusitako normalizazio plana. Hala eta guztiz ere, 1998rako aurrekontuak euskara ikasteko liberatutako langileen ordezkioak kontratatzeke diru-izendapenak barne hartzen zituen, 348 milioi pezetakoak.

Justizia Administrazioak ere egoera berezia dauka eta azalpen gehigarria egitea eskatzen du, izan ere, bertan hiru langile multzo elkartzen baitira: magistratuak eta epaileak (Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren baitako direnak); kidego nazionaletako langileria (1.670 lanpostu 1998an; aurrekontuak EAEren aurrekontuaren kargura ordaintzen dira); eta administrazio autonomoaren baitako administrazioeko langileak. Lehenengo biak EFPLren eragin-esparruz kanpo daude, nahiz eta HAEk kudeatzen duen normalizazio prozesuan borondatez esku har dezaketen; honela, bada, 1998/99 ikasturtean talde hauetako 578 langilek eman zuten izena (94 magistratu eta 484 kidego nazionaletakoak), guztiek ere, eguneko 2 orduko ikastaroetan.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.5 HABE

HABE erakunde autonomoak euskaltegi publiko eta pribatuen sarea koordinatzen du eta ondoko datu ekonomiko eta plantilarenak eskuratu dizkigu, 1998ko urtealdiari dagokionez:

HABE: 1998. URTEA				Milioi pezeta			
Gastuak				Ikastetxe kopurua		Eskola- Guztira orduak (*)	
Langile gastuak.....							388
2. kap.: langile publikoen euskaltegi-tako matrikulazio-kostua							280
2. kap.: aldizkarien argitalpena (11 zbk. HABE, Unesco, Hizpide) eta liburuak							37
2. kap.: eraikinen mantenimendua, ikerketak, materiala, etab.....							59
Euskaltegiei dirulaguntzak: sare publikoa	40	3,3	1.217				
Euskaltegiei dirulaguntzak: sare pribatua, homologatutakoak	52	6,7	1.452				
Euskaltegiei dirulag.: sare pribatua, homologatu gabe (734 pta/emandako h)	47	1,6	119				
Egonaldiei dirulag. barnetegietan (188M) eta familietan (5M)			193				
Inbertsioak (15M) eta langileei aurrerakinak (4M)			19				
Guztira	139	11,6	3.764				
(*) Orduak x 1997/98 ikasturteko ikasleak, milioika orduetan. Gutxi gora-beherako batezbestekoa, taldeko 10 ikaslekoa da.							
Plantila				Guztira			
Arduradunak (1 zuzendaria, 2 zerbitzaburu, 10 unitateburu)			13				
Teknikariak			35				
Administrariak			27				
GUZTIRA			75				

HABE bi zerbitzutan zati-banatzen da: bata, kudeaketazkoa (administrazio-egitekoak, liburutegia eta euskaltegien ikuskaritza) eta bestea, Hizkuntzaren Didaktika (irakasleak prestatzeko eta ikasmateriala lantzeko euskaltegiei laguntza ematen die; argitalpenak eta ikasketa-planen garapenak ere besarkatzen ditu).

40 udal euskaltegiei ematen zaizkien dirulaguntzak (40 zuzendari, 13 idazkari akademiko, 275 irakasle eta 39 administratzaile langile) kalkulatu dira langileen kostu estandarizatuari aurre egiteko heinean, matrikulek eragindako sarrerak murriztu ondoren; honek emandako eskolordu bakoitzeko 3.700 pezeta inguruko dirulaguntza egiten du.

Euskaltegi pribatu homologatuei ematen zaizkien dirulaguntzak ikastordua eta talde bakoitzeko erreferentziarako kopuru bat abiaburu hartuta kalkulatu dira; kopuru hori gehitu egiten da ikastetxearen ordainsari-maila globalak maila jakin bat gainditzen bada eta murriztu egiten da, baldin eta taldeen batezbesteko tamaina 8 eta 11 kidetik beherakoa bada, udalerriaren biztanlearen arabera. Honekin guztiarekin, azken dirulaguntza, batezbestean, emandako eskolordu bakoitzeko 2.546 pezetakoa izan da.

HABEren finantzaketa bi bidetatik egiten da: Kultura Sailetik funtzionamendurako transferentzia orokor bat eskuratzen baitu (3.131 milioi pezeta 1998an) eta berariazko beste bat, Ogasun Sailaren eskutik, HAEEk antolatzen dituen langile publikoen euskarazko ikastaroen kostuari aurre egiteko (593 milioi pezeta).



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.6 HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA

Ondoko taulan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egindako gastua zati-banatu dugu eta ondoren, bertako plantila bi zuzendaritzen artean banatuta azalduko dugu:

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA: 1998. URTEA		Miloi pezeta
Gastuak		Guztira
Langile gastuak.....		188
2. kap.: ikerlanak: Web orriaren diseinua, toponimia, L. L. Bonaparte hondoak, dialektoak, e.a.....		16
2. kap.: argitalpenak eta bestel.: Bidegileak bilduma (13M), Ahoz Aho erakusketa ibiltaria (11M), Berripapera (10M) , soziolinguistikako II. inkesta, Hou Pitxou Hou, e.a		64
2. kap. bestel.: materialak (8M), bidai gastuak (8M), publizitatea (4M), e.a.....		24
Dirulaguntza Euskaltzaindiari (109M) eta UZEIri (13M).....		122
Prentsari dirulaguntza: Euskaldunon Egunkaria		156
Euskarazko aldizkari dirulaguntza, autonomia esparrukoak (59M) eta udal mailakoak (25M).....		84
Euskalgintzari dirulag.: enpresetan erabil. plan. (15M), ondare-berreskurak. (10M), irratiak (9M), askotarik.		62
Euskara sustatzeko udal programei dirulaguntzak		41
Itzulpenetarako dirulag.: videoak (17M), literatura unibertsala (10M), L. L. Bonaparteren idatziak (6M), e.a..		36
Inbertsioak: TVko Hitzaro programaren eskub. (24M), Xuxen software zuzentzailea (10M), e.a.....		51
Guztira		844

Plantila	Orokorra	Ikasketa eta Prom.	Normali-zazioa	Guztira
Arduradunak (1 sailburuorde, 2 zuzendari, 4 zerbitziburu).....	1	3	3	7
Teknikariak.....		8	9	17
Administrariak		6	2	8
GUZTIRA	1	17	14	32

Normalizaziorako zuzendaritzak normalizazio planak egiten ditu edo egiten laguntzen du, batik bat erakunde publikoei baina baita, erakunde pribatuei ere, eta gero, horren jarraipena egiteaz gain, administrazioarekiko harremanak ere bideratzen ditu.

Ikasketa eta Promozioen zuzendaritzak gizarte osoari zuzentzen dio bere egitekoa, 2. eta 4. kapituluetakoa ia gastu guztiak kudeatzen dituela.

Honela, bada, 1998an HPSOk autonomia administrazioaren 1997-2002 aldirako Normalizazio Plana eta Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana gauzatu zituen.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.7 FORU DIPUTAZIOAK

Ondoko taulan euskara sustatzeko Foru Diputazioek bideratutako jardueren kargura egindako gastuak eta horietarako izendatutako plantila zehaztu dugu:

FORU DIPUTAZIOAK, 1998-AN EUSKARAZ EGINDAKO JARDUERAK (*)		Milioi pezeta			
Gastuak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	
Bertako langileen gastuak.....	22	87	78	187	
Langile gastuak: liberatutako langileen ordezkoen kontratazioa	52	65	4	121	
2. kap.: azpikontratutako itzulpenak	6	9	14	29	
2. kap.: foru langileei emandako prestakuntza osagarria (trebatzaileak, etab.)	8	13	34	55	
2. kap.: bestelako funtzionamendu gastuak.....	7	1	18	26	
Euskaltzaindia eta UZEIri emandako dirulaguntzak.....	9	31	26	66	
Euskarazko kultur-jarduerari dirulaguntzak	9	35	34	78	
Euskarazko argitalpen-produkzioari dirulaguntzak	-	8	56	64	
Euskara ikasteko dirulaguntza, Merkataritza Ganberan (4M) eta udaletan (6M).....	10	-	-	10	
Bestelakoetarako dirulag.: Bizkaian Poznan irakurlegoa, etab.	-	11	1	12	
Inbertsioak eta bestelakoak.....	-	-	5	5	
Foru Diputazioak	123	260	270	653	
AFD, Gizarte Ongizat. Foru Erak.: liberatut. langileen ordezkap. (40M) eta ikastar. (1M)	41	-	-	41	
Guztira	164	260	270	694	

(*) Zuzendu egin ditugu programen kontularitzako datuekiko hainbat kopuru, 1998ko Gastuen taulan adierazi bezala, Ondorioen ataleko II. idatz-zatian "1998ko datu ekonomikoak".

Plantila	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Karguak, zerbitzuburuak eta sekzioko buruak.....	1	1	2	4
Teknikariak	-	10	9	19
Administrariak.....	3	2	1	6
Guztira	4	13	12	29

Aurreko taulako hizkuntz-prestakuntza osagarria, ia osorik, euren lanpostuei atxikitako hizkuntz eskakizuna egiaztatua duten, baina lana euskaraz egiteko laguntza osagarria behar duten langileentzako emana dago.



INTRODUCCIÓN

Alcance del trabajo

El presente informe, incluido en el Programa Anual de Trabajo abril 1999-marzo 2000 del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas-TVCP, analiza los programas de normalización y fomento del uso del euskera realizados por el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales, y fue solicitado por el Parlamento Vasco.

El trabajo realizado ha consistido en identificar, en el apartado I, los programas y gastos presupuestarios en que se concretan estas actuaciones, y sus datos económicos en el ejercicio 1998.

A continuación, el apartado II del informe ofrece información sobre el nivel de capacitación lingüística de los empleados públicos, y la situación de los planes de normalización finalizados y la de los vigentes en la actualidad.

En el apartado III se presentan los resultados de la revisión del cumplimiento de la normativa legal en la concesión de las subvenciones más importantes.

Por último, en el apartado IV se comentan otros aspectos de la gestión de estos programas, y las recomendaciones para su mejora.

Concepto de normalización y fomento del uso

A los efectos de precisar el alcance de este informe, hemos considerado “normalización y fomento del uso” las políticas transitorias y extraordinarias que tienen como finalidad conseguir un nivel mínimo de conocimiento y uso del euskera que garanticen su supervivencia sin apoyos especiales.

Por ello, este concepto no incluye ni todas las actividades realizadas en euskera, ni los servicios prestados en este idioma, si no tienen dicho carácter transitorio y objetivo de promoción (por ejemplo, la cadena de televisión ETB1 o la enseñanza del euskera en el sistema educativo).

El marco legal

La Ley 10/82 Básica de Normalización del Uso del Euskera concretó las obligaciones que los derechos lingüísticos reconocidos a los ciudadanos vascos por la Constitución y el Estatuto de Autonomía generaban al sector público.

En el sector de la enseñanza, esta Ley se desarrolla al año siguiente a través del Decreto 138/83, que regula los modelos lingüísticos y pone en marcha el programa Irakasleak Alfabetatu eta Euskaldundu-Irale.

Para el resto del sector público vasco, la Ley 6/89 de la Función Pública Vasca, desarrollada a través del Decreto 224/89, obliga a definir los requisitos lingüísticos de los puestos de trabajo, con la excepción de dos colectivos para los que se prevé un tratamiento específico: Osakidetza y la Ertzaintza. (Ver Anexo A.1 para una descripción de los perfiles lingüísticos).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

De este modo, las administraciones públicas más importantes aprobaron sus planes de normalización, iniciando un primer proceso de cinco años que concluyó en 1995.

El Decreto 86/97 puso en marcha el segundo período de planificación, que es el actual, con vigencia hasta el año 2002.

Para la Ertzaintza, el Decreto 30/98 definió los objetivos del plan de normalización, y en ese mismo año se aprobó la primera Relación de Puestos de Trabajo que establece requisitos lingüísticos.

En Osakidetza, la Ley 8/97 de Ordenación Sanitaria prevé la confección de un plan de normalización, que todavía no ha sido aprobado a 31.12.99.

También en desarrollo de la Ley 10/82, y para potenciar el conocimiento y uso social del euskera, la Comunidad Autónoma del País Vasco creó en 1983:

- la Secretaría de Política Lingüística, que en 1995 se transformó en la Viceconsejería de Política Lingüística-Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza-HPSO.
- el organismo autónomo Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea-HABE para la enseñanza del euskera a los adultos.



CONCLUSIONES

I. LOS PROGRAMAS PRESUPUESTARIOS Y LOS GASTOS DE 1998

Los gastos en el ejercicio 1998 de los programas presupuestarios de normalización y fomento del euskera en las administraciones autonómica y forales han sido los siguientes (en el caso de la Ertzaintza y Osakidetza se indican los gastos de estas actividades, que no figuran en las cuentas anuales diferenciados en programas específicos):

GASTOS DE NORMALIZACIÓN Y FOMENTO DEL EUSKERA EN 1998								Millones-ptas.			
Programa	Anexo	_Gtos. personal_ Propio	Sustituc. Sustituc.	Subven- ciones	Compras y otros	Gastos 1998 (*)	For- mac.	Pro- moc.	Tra- ducc.	Plantilla 98 (**)	
Administración de la CAPV											
Dep. Educación: euskaldunización de docentes.	A.2	546	5.598	814	528	7.486	X	X	-	17.808	
IVAP: euskaldunización otros empleados públ...	A.3	249	-	124	216	589	X	-	X	5.830	
Ertzaintza: gastos en Academia de Policía.....	A.4	41	-	-	130	171	X	-	-	7.301	
Osakidetza: gastos en Servicios Generales	"	-	348	-	-	348	X	-	-	21.718	
HABE: total gastos.....	A.5	388	-	2.981	395	3.764	X	X	-		
HPSO: programa de Política Lingüística (***)....	A.6	188	-	501	155	844	-	X	-		
Administración de la CAPV		1.412	5.946	4.420	1.424	13.202				52.657	
DF. Álava: euskaldunización.....	A.7	22	92	28	22	164	X	X	X	1.709	
DF. Bizkaia: normalización lingüística.....	"	87	65	85	23	260	X	X	X	3.433	
DF. Gipuzkoa: normalización.....	"	78	4	117	71	270	X	X	X	1.901	
Total gastos Admón. Gral. y Dip. Forales		1.599	6.107	4.650	1.540	13.896				59.700	
Clases de euskera a empleados no sustituidos (estimación)						1.128					
Total incluyendo la estimación anterior						15.024					

(*) Los datos de las siguientes líneas no coinciden con los de las cuentas anuales:

- DF Álava: se han añadido los gastos de personal, que no se imputan a este subprograma.
- DF Bizkaia: se han añadido los gastos de actividades culturales en euskera, para homogeneizar los datos.
- DF Gipuzkoa: se han añadido los gastos de sustituciones, y eliminado la subvención a la Sociedad de Estudios Vascos.

(**) Plantilla total del colectivo de empleados públicos al que se dirige el programa de normalización.

(***) Deducidas las transferencias al HABE.

Los programas presupuestarios

Los programas presupuestarios presentados en el cuadro anterior son bastante uniformes, y recogen las siguientes actividades:

- la formación lingüística de los empleados
- la promoción del uso del euskera y de su conocimiento social, aunque engloban actuaciones en las que, con frecuencia, es difícil distinguir los límites entre la promoción del idioma y la actividad cultural desarrollada en euskera.



- Junto a las mismas, se incluyen actividades como los servicios de traducción, que no tienen relación con las políticas de recuperación del euskera y que son necesarias en cualquier comunidad bilingüe.

Con respecto a su evolución interanual, los gastos de los siete programas presupuestarios específicos que se incluyen en las cuentas anuales supusieron en 1996 y 1997 el 90% y el 94%, respectivamente, de los gastos de 1998.

En la Administración de la CAPV, la Viceconsejería de Política Lingüística-HPSO coordina los planes de normalización y promueve el uso social del euskera. Para la capacitación de los empleados públicos, hay 5 unidades orgánicas que intervienen en los planes de formación:

- el Departamento de Educación, para el colectivo de docentes
- el organismo autónomo IVAP, para los empleados autonómicos, forales y locales
